Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 30a.

Vitoria-Gasteiz a 30 de julio de 2021.

BILDU DIRA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Alkate Udalburua Gorka Urtaran Agirre jauna eta Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusi Antonio Aiz Salazar jauna.

SE REUNEN

El Sr. D. Gorka Urtaran Agirre, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y el Sr. D. Antonio Aiz Salazar, Director General de la Agencia Vasca del Agua.

ESKU HARTU DUTE

Lehenak, udalaren legezko ordezkari gisa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124.4.a) artikuluak ematen dizkion ahalmenak erabiliz.

Bigarrenak, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusi den aldetik eta Agentziaren Estatutuen 7.2.g) artikuluak ematen dizkion eskumenak betez.

Bi aldeek LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzeko beharrezko legezko gaitasuna onartzen diote elkarri, eta, horretarako

INTERVIENEN

El primero, en ejercicio de la capacidad legal de representación del Ayuntamiento que le confiere el artículo 124.4.a) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

El segundo de ellos en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua, y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de sus Estatutos.

Quienes intervinienen se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto

HONAKOA AZALTZEN DUTE

LEHENA.- 2009ko abenduaren 17an, Uraren Euskal Agentziak eta Vitoria-Gasteizko Udalak hitzarmen bat izenpetu zuten, Esquivel, Torroguico, Mariturri, Ali, Batán, Zapardiel, Olarizu eta Errekaleor ibaien (Vitoria-Gasteiz hegoaldeko ibaiak deituen) hobekuntza hidrologiko eta hidraulikorako planaren faseak proiektu batean zehazteko. Plana 2007an idatzi zuen Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritza zenak.

Aipatu planaren lehen faseko proiektua idaztea ere barne hartzen zuen hitzarmen horrek, hala nola aipatu lehen fase horretako obrak kontratatu eta egitea. Udalak hartuko lituzke bere gain jarduketa horiek guztiak eta agentziak finantzatuko lituzke guztiak % 100ean.

BIGARRENA.- Aipatu hitzarmenaren kontura, Vitoria-Gasteizko Udalak «Vitoria-Gasteiz udal-mugarteko Batan eta Zapardiel ibaien uholdeetatik babesteko proiektua» idaztea kontratatu

EXPONEN

PRIMERO.- Que, el 17 de diciembre de 2009 la Agencia Vasca del Agua y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz suscribieron un convenio con el objeto de definir, a nivel de proyecto, las fases incluidas en el "Plan de mejora hidrológica e hidráulica de los ríos Esquivel, Torroguico, Mariturri, Ali, Batán, Zapardiel, Olarizu y Errekaleor" (denominados Ríos del Sur de Vitoria-Gasteiz), que había sido redactado en 2007 por la entonces Dirección de Aguas del Gobierno Vasco.

El convenio incluía también la redacción del proyecto correspondiente a la primera fase de dicho Plan, así como la contratación y ejecución de las obras de dicha primera fase, asumiendo el Ayuntamiento llevar a cabo todas estas actuaciones objeto del convenio y la Agencia la financiación del 100% de las mismas.

SEGUNDO.- Que, con cargo al reiterado convenio el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz contrató la redacción del "Proyecto de defensa contra inundaciones de los ríos Batán y

zuen; lan horiek Uraren Euskal Agentziarekin elkarlanean egin dira.

Zapardiel en el t.m de Vitoria-Gasteiz", labores que se han llevado a cabo con la colaboración de la Agencia Vasca del Agua.

HIRUGARRENA.- Administrazio biek, elkarlanarekin jarraituz, esparru-akordio bat izenpetu zuten 2012ko urriaren 24an, zein bere aurrekontu-aukeren barnean, Vitoria-Gasteizen uholdeen kontrako babes-obra batzuk egiteko, tartean, aurreko puntuan aipatutako proiektuari zegozkionak.

TERCERO.- Que, continuando con esta colaboración ambas administraciones, el 24 de octubre de 2012 suscribieron un acuerdo marco para colaborar, dentro de sus disponibilidades presupuestarias, en la ejecución de diversas obras de defensa contra inundaciones en Vitoria-Gasteiz, entre las que se contemplaban las correspondientes al proyecto referido en el exponendo precedente.

Hala, aurrekontu-erabilgarriaren mende betiere, Uraren Euskal Agentziak aipatu obrak % 100ean finantzatzeko konpromisoa hartu zuen. Udalak, aldiz, obrak egiteko beharrezkoak ziren lursailak jarriko zituen agentziaren eskura.

Así, y subordinado a la capacidad presupuestaria existente, la Agencia Vasca del Agua se comprometía a contratar y financiar el 100% de dichas obras, y el Ayuntamiento, por su parte, a poner a disposición de la primera los terrenos necesarios para llevarlas a cabo.

LAUGARRENA.- Vitoria-Gasteiz udal-mugarteko Batan eta Zapardiel ibaien uholdeetatik babesteko proiektua behin betiko onartuta dago, beraz, bi alderdiek baliabide ekonomiko egoki eta nahikoak

CUARTO.- El "Proyecto de defensa contra inundaciones de los ríos Batán y Zapardiel en el T.M. Vitoria-Gasteiz" se encuentra aprobado definitivamente, por lo que

dauzkatenez, obren kontratazio eta exekuzioari ekiteko izapideak hasiko dira, obrak lehentasunezkoak direnez bi alderdientzat.

disponiendo ambas partes de recursos económicos adecuados y suficientes, procede iniciar los trámites para abordar la contratación y ejecución de las obras, de carácter prioritrio para ambas partes.

BOSGARRENA.- 2012ko urriaren 24ko akordio horren bigarren klausulan ezarritakoaren arabera, alderdiek garapen-hitzarmen bat izenpetu behar zuten, Uraren Euskal Agentziak finantzatu beharreko obra bakoitzeko. Hitzarmen horietan, «behin obra-proiektua aztertuta, aurrekontuak, obra-exekuziorako beharrezkoak ziren aurrekontu-esleipenak eta sinatzaileek, hitzemandako obrak egoki burutzeko, bere gain hartutako betebeharrak» zehaztu behar ziren.

QUINTO.- En la cláusula segunda del citado Acuerdo de 24 de octubre de 2012 se establecía la necesidad de suscribir un convenio de desarrollo entre las partes para la ejecución de cada una de las obras a financiar por la Agencia Vasca del Agua, disponiendo que en los mismos se debería concretar, "... a la vista de los proyectos de las obras, los presupuestos de las mismas las consignaciones prespuestarias necesarias para su ejecución y las obligaciones que correspondan a las entidades firmantes para el buen fin de las obras comprometidas".

SEIGARRENA.- Halaber, Udalak hitzemandakoaren arabera, hirigintza-plangintzan sartuko zituen aipatu akordioan barne hartutako jarduketak egin ahal izateko xedapenak.

Hala, Vitoria-Gasteizko Udalaren osoko bilkurak, hasiera batean 2020ko apirilaren 24an (Arabako Aldizkari Ofiziala, 57. zk.,

SEXTO.- Así mismo, el Ayuntamiento adquirió el compromiso de incluir en el planeamiento urbanístico municipal las previsiones que permitieran la ejecución de las actuaciones contempladas en el referido Acuerdo.

En este sentido, el Pleno del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz ha aprobado inicialmente el 24 de abril de

2020ko maiatzaren 22koa) eta behin-behinean 2020ko irailaren 25ean onartu zuen HAPOren egiturako aldaketa puntuala, azpiegitura hidraulikoen eta telekomunikazioetakoen kalifikazio xehatuak zehaztu, eta, aldi berean, Lasarteko legar-hobien inguruko azpiegitura hidraulikoen sistema orokorra zedarritzeko. Eta behin betiko onespena 2021eko uztailaren 23an eman zuen.

2020 (BOTHA nº 57 de 22 de mayo de 2020) y provisionalmente, el 25 de septiembre de 2020, la modificación puntual estructural del PGOU para definir las calificaciones pormenorizadas de infraestructuras hidráulicas y de telecomunicaciones y, a su vez, delimitar un sistema general de infraestructuras hidráulicas en la zona de las Graveras de Lasarte. Y, definitivamente, el 23 de julio de 2021.

ZAZPIGARRENA.- Aipatutako guztiagatik, Uraren Euskal Agentziak eta Vitoria-Gasteizko Udalak Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko uztailaren 30eko bilkuran onetsitako LANKIDETZA-HITZARMENA hau sinatzen dute, klausula hauen arabera:

SÉPTIMO.- Que, por todo lo expuesto, la Agencia Vasca del Agua, y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz proceden a la formalización del presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, aprobado el 30 de julio de 2021 por la Junta de Gobierno Local, con arreglo a las siguientes

KLAUSULAK

LEHENENGOA. HITZARMENAREN HELBURUA.

Hitzarmen honen helburua da hitzarmen honen bigarren klausulan jasotako obrak elkarrekin finantzatu eta gauzatzeko Uraren Euskal Agentziak eta Vitoria-Gasteizko Udalak hartutako konpromisoaren baldintzak arautzea.

CLÁUSULAS

PRIMERA.- OBJETO DEL CONVENIO

El presente convenio tiene por objeto regular las condiciones en las que la Agencia Vasca del Agua y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz se comprometen a colaborar en la ejecución de las actuaciones que se definen en la siguiente cláusula.

BIGARRENA. GAUZATU BEHARREKO JARDUKETAK.

Vitoria-Gasteiz udal-mugarteko Batan eta Zapardiel ibaien uholdeen kontrako babesaren proiektuan sartutako jarduketak finantzatuko dira, hitzarmen honetan ezarritako baldintzen arabera.

Egingo diren obren barnean, ijezketa-areto bat egingo da, 130.551 m3-ko edukierakoa. Orobat, ur-bilketako obrak Batan eta Zapardiel ibaietan, eta aretoan metatutako emaria Ali ibaira bideratzeko hoditeria jartzeko obrak egingo dira, guztiak ere ibai horiek Vitoria-Gasteizen eragindako uholde-arriskua txikiagotzeko, Krispijanako HUAra iristen den karga arintzea eta ibilgu horien ingurunea naturalizatzea eta ingurumen-egoera hobetzea. Obra-eremuko lurzoru kutsatuen kudeaketa ere barne hartuta dago.

SEGUNDA.- ACTUACIONES A EJECUTAR.

Las actuaciones a financiar, en los términos establecidos en el presente convenio, son las incluidas en el "Proyecto de defensa contra inundaciones de los ríos Batán y Zapardiel en el T.M. Vitoria-Gasteiz".

Estas obras contemplan el diseño de un recinto de laminación de 130.551 m3 de capacidad, las obras de captación en los ríos Batán y Zapardiel y la conducción de derivación del caudal almacenado en el recinto hacía el río Ali, todo ello para reducir la inundabilidad causada por estos ríos en la ciudad de Vitoria-Gasteiz, la disminución de la carga que actualmente llega a la EDAR de Krispijana y la naturalización y mejora ambiental del entorno de esos cauces. También contemplan la gestión de los suelos contaminados en el ámbito de las obras.

HIRUGARRENA. URAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONPROMISOAK

Uraren Euskal Agentziak honako konpromiso hauek hartuko ditu bere gain:

a) Vitoria-Gasteiz udal-mugarteko Batan eta Zapardiel ibaien uholdeetatik babesteko proiektuan sartutako obrak kontratatzea, obren eremuko lurzoru kutsatuen kudeaketa barne.

b) Obrak zuzendu eta alderdi teknikoak ikuskatzea.

c) Proiektuan jasotako obren benetako kostua finantzatu eta abonatzea.

Uraren Euskal Agentziak, hitzarmen hau dela eta, hitzematen duen gehieneko ekarpenaren zenbatekoa SEI MILIOI BERREHUN ETA LAUROGEITA BI MILA LAUREHUN ETA HOGEITA SEI EURO ETA BERROGEITA HAMABOST ZENTIMO da (6.282.426,55), BEZa barne, horietatik, ZORTZIEHUN ETA HOGEITA HAMAR MILA EURO (830.000) 2021erako konpromiso-kreditu bati dagozkio, eta BOST MILIOI LAUREHUN ETA BERROGEITA

TERCERA. COMPROMISOS DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA

La Agencia Vasca del Agua se compromete a:

a) Contratar las obras incluidas en el "Proyecto de defensa contra inundaciones de los ríos Batán y Zapardiel en el T.M. Vitoria-Gasteiz" , que incorpora la gestión de los suelos contaminados en el ámbito de las obras.

b) Dirigir e inspeccionar técnicamente la ejecución de las citadas obras.

c) Financiar y abonar el 100% del coste efectivo de las obras incluidas en el mencionado proyecto.

El importe previsto como aportación máxima que compromete la Agencia Vasca del Agua en virtud del presente convenio es de SEIS MILLONES DOSCIENTOS OCHENTA Y DOS MIL CUATROCIENTOS VEINTISEIS EUROS CON CINCUENTA Y CINCO CÉNTIMOS (6.282.426,55), IVA incluido, correspondientes a un crédito de pago para 2021 de OCHOCIENTOS TREINTA MIL EUROS (830.000) y un crédito de

HAMABI MILA LAUREHUN ETA HOGEITA SEI EURO ETA BERROGEITA HAMABOST ZENTIMO (5.452.426,55) 2022rako konpromiso-kreditu bati. Horiek agentziaren aurrekontuaren kontura finantzatuko dira, 23120010 kontu-sailaren bidez.

compromiso para 2022 de CINCO MILLONES CUATROCIENTOS CINCUENTA Y DOS MIL CUATROCIENTOS VEINTISEIS EUROS CON CINCUENTA Y CINCO CÉNTIMOS (5.452.426,55), que se financiarán con cargo al presupuesto de de la Agencia, imputable a la cuenta 23120010.

LAUGARRENA.- EAKO UDALAREN BETEBEHARRAK.

CUARTA.- OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ .

Vitoria-Gasteizko Udalak honako betebeharrak izango ditu:

a) Behar diren lursailak agentziaren eskura jartzea aldi baterako edo behin betiko, hitzarmenaren xede diren lanak egiteko.

b) Obra horiek Vitoria-Gasteizko Udalari entregatu behar zaizkionez amaieran, kudeaketa- eta mantentze-lanak egin ditzan, eta hiri-bilbearen barnean egingo direnez, horrek dakartzan eraginekin, ordezkari bat izendatu beharko da, eta berau izango da udal-sailekin harremanetan egongo dena obrak egiten diren aldian, obrak beraiek egoki koordinatu, garatu eta burutzeko.

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz se obliga a:

a) Poner a disposición de la Agencia los terrenos precisos, temporal o definitivamente, para la ejecución de las obras objeto del convenio.

b) Dado que estas obras han de ser finalmente entregadas al Ayuntamiento de Vitoria para su gestión y mantenimiento y discurren por el entramado urbano de la ciudad con las consiguientes afecciones que ello implica, designar un representante que será el interlocutor con los diferentes Departamentos municipales durante su duración para una buena

coordinación, desarrollo y fin de dichas obras.

c) Uraren Euskal Agentziaren eskutik obrak jasotzea, behin burututa, eta haren bidez. Lan horiek udal-jabegoan geratuko dira, eta Vitoria-Gasteizko Udala horiek modu egokian kudeatu eta mantentzera derrigortuko da, eta horretarako behar diren aurrekontu-aurreikuspenak egiteko eta neurriak hartzeko konpromisoa hartuko du.

c) Recibir de la Agencia Vasca del Agua las obras, una vez terminadas y recibidas por ella, las cuales quedarán en propiedad municipal, obligándose el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz a su gestión y mantenimiento adecuados, comprometiéndose a realizar las previsiones presupuestarias y a adoptar las demás medidas precisas para tal fin.

BOSGARRENA. OBRAK KONTRATATU, ZUZENDU ETA IKUSKATZEA.

QUINTA.- CONTRATACIÓN, DIRECCIÓN, E INSPECCIÓN DE LAS OBRAS.

1.- Uraren Euskal Agentziak, hitzarmen honetako 3.a) klausularen arabera, bere gain hartzen ditu hitzarmeneko obrak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari aplika dakiokeen kontratazio-araudiaren arabera.

1.- La Agencia Vasca del Agua, conforme a la cláusula 3.a) del presente convenio, se hace cargo de la contratación de las obras objeto del mismo, según el régimen de contratación aplicable a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.- Egin beharreko obren zuzendaritza eta ikuskaritza teknikoa Uraren Euskal Agentziak egingo du. Orobat, ziurtapenen onarpena ere Agentziak egingo du

2.- Corresponderá a la Agencia Vasca del Agua la dirección e inspección técnica de las obras a ejecutar. Además corresponderá a la citada Agencia la aprobación de las certificaciones.

3- Lanak agentziaren eskutik jaso ondoren, agentziak Vitoria-Gasteizko Udalaren eskura jarriko ditu lan horiek hark ondoren ustiatu eta zaindu ditzan, laugarren klausulan adierazten denaren arabera.

3.-Recibidas las obras por la Agencia, ésta las pondrá a disposición del Ayuntamiento, para su posterior explotación y conservación, conforme a lo indicado en la cláusula cuarta.

Obrak Udalaren esku uzteko eta Udalak behar bezala ustiatu eta zainduko dituela hitzemateko, akta bat egingo da.

La transmisión de la posesión de las obras al Ayuntamiento, así como su compromiso de adecuada conservación y explotación, se articularán mediante un acta.

SEIGARRENA. JARDUNEN JARRAIPENERAKO BATZORDEA.

SEXTA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO DE LAS ACTUACIONES.

1.- Lankidetza-hitzarmen honen jarraipen-batzordea eratuko da. Batzordekideak lau izango dira: bi Uraren Euskal Agentziakoak; beste biak, berriz, Eako Udalekoak. Esparru-akordio hau sinatu duten aldeek izendatuko dituzte, hurrenez hurren, honako eginkizun hauek betetzeko:

1.- Se constituirá una comisión de seguimiento del presente convenio de colaboración compuesta por cuatro personas, dos en representación de la Agencia Vasca del Agua y otras dos del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, que se designarán, respectivamente, por las partes firmantes del mismo, para el desempeño de las siguientes funciones:

a) Jarraipena egitea hitzarmen honetan aurreikusitako jarduerak zuzen betetzeko, eta irizpideak eta bitartekoak ezartzea alderdiek elkarri informazioa eman

a) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el presente convenio de colaboración, determinando los criterios y modos

diezaioten eta dagozkien konpromisoak egoki bete ditzaten.

para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.

b) Kasu bakoitzean behar diren izapideak azkar egitea eragotz dezaketen oztopoak kentzeko bideak ematea.

b) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

c) Lankidetza-hitzarmen honen xedeko jarduketak beteko direla bermatzeko behar diren neurriak jakinaraztea eta proposatzea.

c) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente convenio de colaboración.

d) Lankidetza-hitzarmen honek sor ditzazkeen interpretazio- eta betearazpen-arazoak konpontzen saiatzea.

d) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear el presente convenio de colaboración.

2.- Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, aldeetako edozeinek proposatuta elkartuko da batzordea, jarduketak ondo joan daitezen behar adina bider. Presidentetza eta idazkaritza txandaka beteko dituzte, batzordeak berak bestelakorik adosten ez badu. Kideek aho batez onartu beharko dituzte akordioak eta bilera-quorumak.

2.- Durante la vigencia del convenio y a propuesta de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones, siendo rotatorias la presidencia y la secretaría de la misma, salvo acuerdo distinto expreso de la propia Comisión. Los quórum de reunión y de adopción de acuerdos serán los de unanimidad de sus miembros.

3. Jarraipen Batzordearentzat espresuki jasotzen ez dituen gaietan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren II. kapituluaren hirugarren atalean arautzen den kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da.

3. En lo no previsto expresamente para la comisión de seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado Sección 3ª del Capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

ZAZPIGARRENA.- HITZARMENAREN ARAUBIDEA ETA INTERPRETAZIOA.

SÉPTIMA. REGIMEN E INTERPRETACION DEL CONVENIO.

1. Hitzarmen hau administrazio arlokoa da, eta, beraz, interpretatu eta garatzeko administrazio publikoen arteko lankidetza hitzarmenei aplikatu beharreko administrazioko ordenamendu juridikoa bete beharko da.

1. El presente convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas.

2. Hitzarmenak edo hori betearazteak sortarazitako interpretazio arazoak jarraipenerako batzordeak konponduko ditu aurreko klausulan esandakoari jarraikiz, eta, hala ezin bada, 40/2015 legea bete beharko da.

2. La resolución de los problemas de interpretación que puedan plantear el presente convenio o su ejecución serán resueltos por la comisión de seguimiento según lo referido en la cláusula anterior; si no fuera posible, se estará a lo dispuesto en la citada Ley 40/2015, de 1 de octubre.

ZORTZIGARRENA. HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA.

1. Hitzarmenak ez ditu parte-hartzaileak behartuko nork bere aginpideei uko egin edo haiek aldatzera, eta hitzarmenaren ondorio diren konpromisoengatiko erantzukizunak bakarrik hartuko dituzte beren gain.

2.- Hitzarmenak sinatzen denetik izango ditu ondorioak eta ordutik behartuko ditu parte-hartzaileak, hitzarmen honen xede diren jarduketak amaitu eta entregatu arte iraungo du, gehienez ere lau urtez hasiera batean, epe hau legeriaren arabera luzatu ahal izango delarik.

BEDERATZIGARRENA. HITZARMENA IRAUNGITZEA.

1. Hitzarmena aurreko klausulan ezarritako indarraldia igaro delako edo hitzarmena hautsi egin delako iraungiko da.

2. Aldeetako batek onartutako konpromisoak betetzen ez baditu, besteak eskubidea izango du zorrotz betetzeko eskatzeko edo hitzarmena hausteko eskatzeko. Hitzarmena hautsiz

OCTAVA. EFECTOS Y DURACIÓN DEL CONVENIO.

1. El presente convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

2. Este convenio surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma, y durará hasta la conclusión y entrega de las actuaciones objeto del mismo, con un máximo inicial de cuatro años prorrogables de conformidad con la legislación aplicable.

NOVENA. EXTINCIÓN DEL CONVENIO.

1. Este convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior, o por resolución.

2. El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, o para exigir su estricto cumplimiento, o para solicitar la resolución del convenio. En caso de

gero, aldeek zehaztuko dute nola amaituko diren eta ordainduko diren gauzatzen ari diren obrak.

resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las obras que se hallen en ejecución.

Eta horren guztiaren ondorioz eta horrekin bat, aldeek idazpuruan adierazitako leku eta egunean sinatu dute hitzarmena bina aletan.

Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes, por duplicado, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

EL DIRECTOR GENERAL DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA/ URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ZUZENDARI NAGUSIA

ANTONIO AIZ SALAZAR

EL ALCALDE-PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ / VITORIA-GASTEIZKO ALKATE-UDALBURUA

GORKA URTARAN AGIRRE